



AÑANAKO GATZ HARANA FUNDAZIOA  
FUNDACIÓN VALLE SALADO DE AÑANA

## AÑANAKO GATZ HARANA FUNDAZIOAK [WWW.VALLESALADO.COM](http://WWW.VALLESALADO.COM)

### WEB ORRIALDEA AURKEZTEN DU

- *Web* orrialdea erakundearen hiru euskarrietan oinarrituz diseinaturik dago: zaharberritzea, bisitaldia eta gatza.
- Izen emateak, ibilbide birtualak, erreserbak *on line* zaharberritze lanen helburuak, Plan Zuzentzailea ...

Añanako Gatz Harana Fundazioak [www.vallesalado.com](http://www.vallesalado.com) bere *web* orrialdea aurkezten du. Fundazioko Presidenteak, Lorena López de Lacallek, dioten moduan “*web* orrialdea tresna bizi, erabilgarri eta dinamiko gisa sortu da, hori dela eta etengabe eguneratu eta Fundazioaren egunean eguneko bilakaera islatuko du”. Bestalde, Fundazioko zuzendari-kudeatzaileak, Mikel Landak, ondorengoa zehazten du: “*web* gune hau erakundearen hiru euskarrietan diseinaturik dago, hau da, zaharberritzea, bisitaldia eta gatza, alegia”.

Erakundearen irudi korporatiboa kontutan hartuta, *web* orrialdea –euskara, gaztelania, ingelera eta frantsesa hizkuntzetan aurkeztua- txuri, gris eta beltz koloretan diseinaturik dago, estetika xumea eta garbia erabiliz.

Erabiltzaileak Fundazioa eta Gatz Haranari buruz arakatu nahi izanez gero, klik egin eta haran paregabe honen historia eta jatorria, Fundazioak plazaratutako argitalpenak, Plan Zuzentzailea edo haranaren ezaugarri garrantzitsuenak (iturriak, putzuak, ubideak, larrainak edo gatz biltegiak) ezagutu ahal izango ditu.

Orain arte burututako eta datorren urteotan egingo diren zaharberritze lanei dagokienean, *web* orrialdeak zaharberritze lan hauen helburuak eta haraneko gune bakoitzean (larrainetan, bideetan eta ubideetan) erabilitako metodoak azpimarratu nahi ditu. Landak zehazten duen moduan, “berreskuratze iraunkorraren garrantzia ez datza soilik arkitektura harrigarrian, interes historiko-arkeologikoan, ingurugiroan edo bertako biotopo berezian, izan ere hauen guztien





AÑANAKO GATZ HARANA FUNDAZIOA  
FUNDACIÓN VALLE SALADO DE AÑANA

batuketa da horren berezia egiten duena Gatz Harana, ingurugiro apartan kokatuta dagoela ahaztu gabe”.

Bisitaldiei dagokienean, *web* orrialdeak El Torco, Herrera eta Interpretazio Zentrora iristeko argibideak, bisitaldia zertan datzan, ordutegiak, prezioak, pedilubioa eta Gatz Haraneko alor turistikoari buruzko informazioa eskaintzen du. *Web* orrialdeak, Gesaltza-Añanako larrinetatik barrena ibilbide birtuala burutzeko aukera ematen du.

Bisitaldi gidaturako erreserba burutu nahi dutenek 945.35.11.11 telefono zenbakian edo [www.vallesalado.com](http://www.vallesalado.com) *web* orrialdearen bitartez egin dezakete. Era erraz eta azkar batean, bisitaldi egutegian barrena miatu daiteke gustokoen dugun ordutegia, plaza kopurua, hizkuntza... bezalako alorrei erreparatuz. Honetaz gain, *web* orrialdeak mezu bat bidali eta talde berezientzat erreserbak egiteko aukera ematen du.

Gatza *web* orrialdeko sail garrantzitsu bat da, Gatz Haranaren ergileetako bat. Sail honetan Añanako gatza balioan jartzen da, tipologia ezberdinak kontutan hartuta: txuzoa, lorea eta gatza, mundu mailako sukaldari onenek eta Euskal Herriko Unibertsitateko ikerketek bermatuta. Erabiltzaileak sail honetan gatzaren artisau elaborazioa ezagutu dezake paisaia eta ondare ingurugiro paregabearen.

*Web* orrialdean hiru gai garrantzi hauetaz gain bestelako informazioa ere topa daiteke: albisteak, argazkiak, antolatutako jardunaldien berri jasotzeko agendan izena emateko aukera...

*Informazioa:*

*Ainara Moreno / Alberto Plata*

*945.21.81.78 / 945.35.11.90*

